

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Heldu eskutik.
Etxe.
Baga Biga.
Iraupena: 36'08".
11 euro.

Hurbiltasuna erritmo biziagoarekin

BERRIZKO musikari gazteak beste pauso bat eman du, taldeagoa bihurtu du proiektua, eta pop-rockaren eremuan lanean jarraitzen badu ere, abestietan gitarrek eta erritmoak indarra hartzen dihardute. Bertako musika du Etxek gustuko eta konposizioetan antzematen da. Horra hor, Gari eta Rafa Ruedaren ahots tinbreak, Eñaut Elorrietaren melodia hauskorrak baita Eskixuren folk kutsuko rocka ere. Baina Green Day-en punk-popa eta

hard-rockaren distira ere badago, Andoni gitarra jotzaile berriaren ahaleginari esker. Hitzetan hurbilekoa dugu Etxe eta sentimendu eta gertaeren gainekoak dira idatzitakoak. Horien artean, nabarmentzekoak dira galdutako anaiari eskainitako *Bakarrik sentitzen naiz* hunkigarria, Anje Duhalderekin batera abestutako *Lurralde bakarra* eta Laboaren omenezkoa.

www.myspace.com/etxemusika

Etxe

«Oso euskal musika zalea naiz eta horrek eragina du nire kantetan»

Lan hau rockeroagoa da. Abestiei bestelako gorpuzkera eman nahi zenien edo talde izaera gehiago nabarmentzea?

Hori da bilatzen nuena. Aurreko diskoko kantak zuzenean jotzean "lasaiegia" zirela nabaritzen nuen. Orduan erabaki nuen hurrengo diskoa rockeroagoa izango zela. Gainera, Andoni gitarra jotzaile berriarekin gitarrek garrantzia handiagoa hartu dute eta eragina izan du kantak lantzerakoan.

Abesteko eran eta melodiatan 90eko hamarkadako hainbat musikari gogora ekartzen dizkidazu. Ados zaude?

Guztiz ados. *Zatoz nirekin* ateratzerakoan askotan konparatu ninduten Garirekin, eta hori plazer handia da. Anaia nagusien eraginez beraien belaunaldiko musika asko entzun dut, eta 90eko hamarkadako musika presente dut: Hertzainak, Zarama, Doctor Deseo... Oso

euskal musika zalea naiz eta horrek eragina du nire kantuetan.

Lurralde bakarra. Nahiz eta askok pentsatu, ez da oso ohikoa halako letrak irakurtzea; ezta ere Anje Duhaldekin beste batzuen diskoetan parte hartzea...

Zuzena izan nahi nuen kanta egiterakoan. Diskoa prestatzen hasi aurretik pentsatuta neukan Iparral-

deari "omenaldi" bat egitea eta hitza idaztean, ederra izango zela Anjerekin abestea. Berari komentatu eta kanta entzun gabe baiezkoa eman zidan. Plazer handia izan da niretzat.

Zer behar da "zure bihotzaren konkistatzaile" izateko?

Maitasunari dagokionez aspalditik nago ni konkistatuta, baina zaleek askotan konkistatzen naute. Nire kantuekin identifikatuta sentitzen direnek, kontzertuetan abesten ikusten ditudanek eta nire musikarekin gozatzeko duten konkistatzen naute.

"Gauetako heroiak aterako dira amets harrapatzaileen antzera". Zure kantetan, gazte eta rockzaleen topikoa apurtuz, gauari buruzko erreferentzia gutxi dago...

Egia da eta ez dakit zein den arrazoia. Dena dela, ez dut ezkutatzeko oso gau eta parranda zalea naizela. ■

